

THERMOMIX BATEN ZOZKETA

1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, F75076935 zenbakidun IFK eta helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, nazio-mailako ZOZKETA egingo du bere webgunean (<https://www.laboralkutxa.com/eu/sustapenak-eta-zozketak>), LABORAL Kutxaren kreditu-txartelen kontratazioa sustatzeko 18 urtetik gorako bezeroen artean, 5. atalean, «parte-hartzaileak» izenekoan, jasotakoaren arabera. Sari hau zozkatuko da: THERMOMIX bat eta Basque Culinary Centerren onlineko sukaldaritza-ikastaro bat.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

Zozketa hau 1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da, eta doakoa eta borondatezkoa izango da. Hortaz, saria eskuratu ahal izateko, ez da kuota edo kopuru gehigarririk ordaindu behar.

3.- Zozketaren xedea eta prozedura

Zozketaren saria honako hau izango da: TM6 modeloko THERMOMIX bat eta Basque Culinary Centerren onlineko sukaldaritza-ikastaro bat. Irabazleak aukeratuko du ikastaroa <https://www.bculinary.com/es/cursos-online> webgunean eta 300 €-ko gehieneko balioa izango du; ikastaroa 2021eko abenduaren 31 baino lehen egin behar da. Zoketan parte hartzeko epealdia 4. atalean, «iraupena» izenekoan, jasotakoa izango da. Irabazleak aukeratutako LABORAL Kutxako bulegoan entregatuko da saria.

Zozketan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete behar dituzte erabiltzaileak:

- Kontuaren titularrak diren 18 urtetik gorako bezeroek —pertsona fisikoek— hartuko dute parte zozketan, baldin eta kreditu-txartel bat kontratatzen badute LABORAL Kutxaren Online Bankaren bidez.
- LABORAL Kutxaren bulegoetan eta web-orrialdean (<https://www.laboralkutxa.com/eu/sustapenak-eta-zozketak>) eskuragarri dagoen zozketaren lege-oinarrietako prozedurari jarraitu behar diote parte-hartzaileak.
- Irabazleak saria onartzeak eskubidea ematen dio LABORAL Kutxari haren legezko tutoreen izen-abizenak argitaratzeko.

4.- Iraupena eta eremua

Jarduera hau Espainiako lurraldean gauzatuko da.

Zozketan parte hartzeko epealdia 2021eko ekainaren 1etik 2021eko abuztuaren 31ra bitartekoa izango da, biak barne.

5.- Parte-hartzaileak

Honako hauek parte hartu ahal izango dute zozketan:

- Kontuaren titularrak diren 18 urtetik gorako bezeroek —pertsona fisikoek—, baldin eta kreditu-txartel bat kontratatzen badute LABORAL Kutxaren Online Bankaren bidez edo bulegoetan.

Honako hauek ezin izango dute parte hartu sustapenean:

- LABORAL Kutxako langileak, ezta taldeko, partaidetzapeko eta antzeko sozietateetako langileak eta kanpainarekin zuzeneko lotura duten pertsonak ere.

Ez dute parte hartzeko edo saria irabazteko eskubiderik izango LABORAL Kutxaren bezeroek, baldin eta:

- LABORAL Kutxaren aurrean berankortasun-egoeran edo beste edozein egoera irregularretan badaude, zozketa indarrean dagoen bitartean, zozketa egiten den egunean edo saria emateko unean.
- LABORAL Kutxaren iritziz iruzurrez jokutzen badute zozketan.



6.- Irabazlea/ak eta ordezkoko aukeratzea, saria jakinaraztea eta ematea

Aurreko 3. atalean zehaztutako sariaren zozketa 2021eko irailaren 12an egingo da, ausazko sistema informatiko baten bidez.

Bidezko arrazoi bat dela eta zozketa ezin bada egun horretan egin, hurrengo egun baliodunean egingo da.

Saridunek LABORAL Kutxari berretsi beharko diote saria onartzen duten ala uko egiten dioten, telefonoz, posta elektronikoz edo bulegoetan sinatutako hartu-agiriaren bidez, saria argitaratzen eta/edo jakinarazten den datatik gehienez egun natural bateko (1) epean. Entitateak bere datu-basean dituen bezeroaren datuak erabiliko ditu.

Parte-hartzaileak sariari uko egiten badio edo zozketa egin eta 3 egun balioduneko epean ezin izan bada berarekin harremanetan jarri, ez du inolako ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Bezero saridunak sariari uko egiten badio, berarekin harremanetan jartzetik ez badago 3 egun balioduneko epean — zozketaren egunetik zenbatzen hasita —, zozketaren baldintzak betetzen ez baditu edo lehenago azaldutako baimena ematen ez badu, saria ordezkoren zerrendako lehen postuan dagoenari esleituko zaio, zozketan parte hartzeko ordena errespetatuz. Gehienez bost (5) ordezeko egongo dira. Saridunak ezingo du sari horren ordezkorik beste bat eskatu.

Sariduna saria jaso aurretik hiltzen bada, horretarako berariaz aukeratutako ordezkori emango zaio.

7.- Sariaren zerga-sistema

Zozketa honetako sariak zerga-tratamendu hau izango du: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 35/2006 Legean, 439/2007 Errege Dekretuan eta kasuan kasuko PFEZren inguruko zerga-araudian aurreikusitakoa. Sariari aplikatuko zaion zerga-atxikipenari dagokion zenbatekoa LABORAL Kutxak ordainduko du.

Era berean, LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu Zerga Administrazioaren aurrean dagozkion informazio-betebeharrak.

8.- Iruzkina edo iritziak argitaratzea

Ez da onartuko iruzkin edo iritzirik, horien edukia desagokitzat jotzen bada, iraingarriak, laidogarriak edo diskriminatzaileak badira, edo hirugarrenen eskubideak urra baditzakete. Era berean, ez da onartuko pertsona baten aurkako iruzkinik, baldin eta ohorerako, intimitate pertsonalerako eta familiarerako eta norberaren irudirako eskubidea urratzen badu. Ez dugu gure gain hartuko inolako erantzukizunik parte-hartzaileek zozketan egiten dituzten iruzkinen eragindako kalteen ondorioz, nahiz eta horiek beste parte-hartzaile batzuen sentzibilitatea mindu.

9.- Erreserbak eta mugak

Adierazpen gisa, baina ez muga gisa, iruzurra egin dela ulertuko da honako kasu hauetan: webgunearekin zerikusirik ez duten aplikazioen balizko erabilera detektatzen bada, zerbitzariari gehiegizko kontsulta-kopurua egiten bazaio, eta itxuraz gehiegizkoak eta/edo asmo txarrekoak diren portaerak antzematen badira.

Zozketan zehar aipatutako egoeraren bat egiaztatzen bada, parte-hartzailea zozketatik kanpo geratuko da automatikoki, eta saria eman bazaio, galdu egingo du.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, baldin eta saridunek emandako datuetan akatsen bat badago eta horrek haien identifikazioa galarazten badu.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik saria ematean edo hori erabiltzean gerta litezkeen gorabeheren ondorioz, ezta berari ez dagozkion arazoiengatik parte-hartzaileak saria jasotzean gerta litezkeen atzerapen edo hutsegiteen ondorioz ere.

Pertsonaren batek zozketaren manipulaziotzat edo faltsifikaziotzat har litekeen edozein egintza egiten badu, LABORAL Kutxak eskubidea izango du haren aurka ekintza judizialak abiarazteko.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik zozketan parte hartzeko erabiltzen diren zerbitzuak aldi baterako erabiltzerik ez egoteagatik edo haien funtzionamendua eteteagatik, erabiltzaileek iruzurrez erabiltzeagatik eta, bereziki baina ez eskusiboki, Internet bidez orrialdeetan sartzean eta parte hartzeko erantzunak bidaltzean izan litezkeen akatsengatik gertatzen diren kalte-galeren ondorioz.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du zozketaren xede onerako aldaketak egiteko, horretarako bidezko arrazoiak daudenean edo zozketa oinarri hauetan jasotzen den moduan burutzea



galarazten duten ezinbesteko arrazoiak daudenean.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du zozketaren iraunaldia luzatzeko edo geroratzeko, baita oinarri hauek interpretatzeko ere.

Halaber, enpresa antolatzaileak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik aipatutako kasuetako bat gertatzen bada edo saria baliatzean gerta litezkeen kalte-galeren ondorioz.

10.- Datuen babesa

Zure datuen tratamenduaz arduratzen den enpresa LABORAL Kutxa da (IFZ: F-75076935; eta egoitza soziala: Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa).

Parte-hartzaileak lege-oinarri hauek onartzen baditu, ulertuko da jakinarazi zaiola LABORAL Kutxak haren datu pertsonalak tratatuko dituela, zozketan parte hartzea tramitzatzeko eta, irabazlea izanez gero, sariaren berri emateko, baita saridunaren izena eta/edo irudia argitaratu, erreproduzitu eta hedatzeko ere, LABORAL Kutxak egoki deritzen bitarteko, euskarri eta formatuen bidez (hala nola, adibide gisa baina inolako mugarik gabe, prentsaren, irratia, telebistaren, Interneten eta abarren bidez), 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamendurako pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoak, eta 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, xedatutakoaren arabera. Aipatutako jarduera horiek ez dute ordainik edo onurarik jasotzeko inolako eskubiderik emango.

Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak eta, era berean, datuen tratamendua mugatzeko eta beste leku batera eramateko eskubideak erabili ahal izango dituzu, zure nortasuna egiaztatuz (NANaren edo horren pareko agiria emanez) eta protecciondatos@laboralkutxa.com helbide elektronikora idatziz, edo, bestela, ohiko postaren bidez honako helbide honetara idatziz: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO, Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa.

Bezeroen Datu Pertsonalak Babesteko Politika osoa hemen irakur dezakezu:

www.laboralkutxa.com/eu/datuen-babesa

11.- Oinarriak onartzea

Zozketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea. Beraz, parte-hartzaileak adierazten badu oinarri hauek guztiak edo batzuk ez dituela onartzen, zozketatik kanpo geratuko da. Ondorioz, LABORAL Kutxak ez du parte-hartzaile horrekin hartutako obligazioa bete beharko. Oinarri hauek www.laboralkutxa.eus webgunean kontsulta daitezke.

12.- Legeria aplikagarria eta jurisdikzioa.

Lege-oinarri hauek Espainiako legearen arabera arautuko dira. Bergarako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena oinarri hauen baliozkotasunaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sor litezkeen erreklamazioak edo ezadostasunak ebazteko.